BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3296

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko balorazio-batzordeko batzarkideak izendatzen dituena eta batzorde horen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 28ko Agindua, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

Kontuan izanda 2013ko maiatzaren 28ko Aginduaren 11. artikuluak aipaturiko dirulaguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horretako batzarkideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez egingo dela.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko osatuko den balorazio batzordearen batzarkideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzarkideak:

– Ana López Asensio anderea.

– Araceli de la Horra Gutiérrez anderea.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Honako Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 27a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.